

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

336 positibo berri
14.702 positibo guztira* UCI In EAEn

2.046 hildako EAEn

NAFARROAN

411 positibo berri
24.937 positibo guztira

649 hildako
37 UCI In Nafarroan

*HERNANIN 443, ASTIGARRAGAN 110

I. Sport Mundi Ongintzako Afaria egingo da asteazken honetan, Chillida Lekun

Vicente Ferrer fundazioak antolatutako ekimena da, eta izena eman behar da aurrez. Bildutako dirua, milaka familien osasun eta ekonomia beharrak asetzeko fundazioak martxan dituen pandemiaren aurkako proiektuetara bideratuko da.

HERNANI CHILLIDA LEKU

Asteazken honetan I. Sport Mundi Ongintzako Afaria egingo da Chillida Leku museoan. Afari horretan Vicente Ferrer Fundaziorako eta bere Indiako COVID-19 larrialdiaren ondorioak arintzeko kanpainarako dirua bilduko da. Afarira joateko eta lan honetan laguntzeko tokiak mugatuak dira. Hori horrela, antolatzaileekin harremanetan jarrita egin daiteke erreserba, www.museo-chillidaleku.com webgunean.

Afaria eta mahai-ingurua

Lurra Caféko terrazan egingo den afariaz gain, gaua amaitu

baino lehen, bertaraten diren guztiek Chillida Lekuko museoa bisitatzeko aukera izango dute. Eta horren ondoren, mahai-ingurua izango da, 4 gonbidatu bereziki: Carlos Sainz, Kirolaren Asturiasko Printzesa Saria 2020; José María Olazabal, Kirolaren Asturiasko Printze Saria 2013; Luis Chillida, Eduardo Chillida - Pilar Belzunce Fundazioko presidentea; eta Jordi Folgado Ferrer, Vicente Ferrer Fundazioko zuzendari orokorra. Eduardo Chillidak Arteen Asturiasko Printze Saria jaso zuen 1987an, eta Vicente Ferrerrek Konkordiararen Asturiasko Printze Saria jaso zuen 1998an.

Vicente Ferrer Fundazioa



India hegoaldeko eskola bateko ikasleak, birusaren gaineko azalpenak jasotzen.

lanean ari da koronabirusari aurre egiteko, eta horretarako antolatu dute larunbateko ekimena. «Herrietako eta ospitaleetako osasun arreta eta infekzioen prebentzioa funtsezkoak dira pandemiari aurre egiteko

eta inor atzean uzteko». Horregatik, Fundazioa bere material eta giza baliabide guztiak bideratzen ari da birusaren hedapena geldiarazteko eta, horrela, landa eremuko milaka familia bere eraginetatik babesteko. **K**

Garapen iraunkorra eta hizkuntza aniztasuna aztergai Orona Ideon, Enpresarean Azokan

Ostegunean izango da, eta aforoa beteta dago. Hala ere, 'streaming' bidez zuzenean jarrai daiteke jardunaldia; izena eman behar da horretarako.

HERNANI ORONA IDEO

Enpresarean Azoka Bai Euskarari Elkarrekin bi urtean behin antolaturiko jardunaldia da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. 2012an egin zen lehenengoa, eta Enpresarean helburua da «euskaraz lan egiten duten enpresa eta profesionalen saretzea eta elkarlana sustatzea». Jardunaldia 09:00etatik 13:30era izango da, Orona Ideoko Gallery aretoan. Segurtasun baldintzak aintzat hartuta antolatuko da

jardunaldia eta baimendutako edukiera murriztuta egongo da. Hori dela eta, dagoeneko aforoa beteta dago eta streaming bidez zuzenean jarraitu ahal izango da. Jardunaldia jarraitzeko izena eman behar da galdetegi hau beteta: <https://enpresarean.eus/info/ikusi/enpresarean-azoka-2020/eman-izena>.

2.000 euroko laguntza, jokoan Aurten ere ekintzaileei zuzendutako Arin-arin saioa egingo da: parte-hartzaileek Garapen



Orona Ideoko Gallery aretoan ospatuko da jardunaldia.

Iraunkorrerako Helburuen aplikazioarekin lotutako proiektuak edo ideak azaldu beharko dituzte, hiru minututan, «arin eta labur».

Bai Euskarari Elkarrekin eta

Gipuzkoako Foru Aldundiak osaturiko epaimahaiak parte-hartzaileen aurkezpenak baloratu eta irabazle bat hautatuko du, ekimena gauzatzeko 2.000 euroko laguntza eskainiz. **K**

Izena eman daiteke, Beldur Barik Jarrera! lehiaketan

HERNANI BELDUR BARIK

Azaroaren 5a da ikus-entzuzko lehiaketan izena emateko azken eguna, www.beldur-barik.eus webgunean. Pertsona eta talde bakoitzeko gehienez 3 bideo bidali daitezke, eta lanek ezingo dute izan 3 minutu baino iraupen luzeagokoak. Sariak, 3 kategorietan, 100 eurokoak izango dira.

Gripearen aurkako txertoa, etzi

EREÑOTZU GRIPEA

Gripearen aurkako txertoa emango da asteazkenean, Ereñotzuko Auzo Udaleko areto nagusian. Goizeko 10:00etan izango da eta aurretik izena ematea derrigorrezkoa da. Horretarako, gaur edo bihar Auzo Udalera gerturatu edo bertako telefono zenbakira deitu behar da: 943 551 000.

Kirola, jarduera fisikoa eta gazteria batzordeak, bilera

ASTIGARRAGA KIROLA ETA GAZTERIA

Gaur arratsaldeko 18:30etan dute deialdia, Osoko bilkura gelan. 6 gai zehaztu dituzte eguneko aztergaiak: aurreko eguneko akta onartzea, 2020ko kirol arloko diru-laguntzak ematea, kirol arloko diru-laguntza deialdi berria, Gaztelekuaren eta GIGren toki-aldaketa, hirugarren adinekoei bideratutako kirol jardueren berrabiaraztea eta bestelako informazioa eta galdera-erreguak.

Literatur solasaldia, bihar Biterin

HERNANI KULTURA

Garazi Arraularen *Gu orduko hauek* liburua izango dute mintzagai bihar Udal liburutegian, arratsaldeko 19:00etan.

**DORRONSORO**
OKINDEGIA

Ogi egin berria
beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

**Allianz**
ASEGURUAK

- biribiz
- latripsak
- ibilgailuak
- etxeak
- komertzioak
- enpresak
- ardura zibila
- finantz aseguruak
- inbertsioak

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

PEÑA
sulabe

Okindegia - Janaridenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko,
Kale Nagusian gaude.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

Zorionak Maren!
7 urte

Muxu handi bat familiaren partez



EGURALDIA



GAUR Hegoaldeko haizea indartzen joango da. Hori dela eta, tenperatura nabarmen igoko da, eta ipar isurialdean 20°C-ak gaindituko dira. Zeruan erdi mailako lainoak eta goi-lainoak ikusiko ditugu, ostarteeekin batera. **Min.13° / Max.25°**



BIHAR Laino gehiago eta haize zakarragoa espero ditugu. Lainoak ugariak izango dira baina, oro har, erdi-mailako lainoak eta goi-lainoak nagusituko dira. Hego-haizea nabarmentzeko izango da eta bolada gogorrek joko du. **Min.15° / Max.23°** (euskaletan)

ARGITARATZAILA



LAGUNTZAILAK



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Udalak Osakidetzari lokala utzi dio, pandemiari aurre egiteko neurri gisa

Gripearen aurkako txertoak eta COVID-19 probak egiteko utzi dio Udalak Osakidetzari, Joseba Barandiaran plazako lokala.

ASTIGARRAGA COVID-19

Udalak Osakidetzaren esku utzi du Gazteleku izandako Joseba Barandiaran plazako lokala. Helburua urte honetako gripearen aurkako txertaketak bertan egin eta astigarraren COVID-19 probak ere bertan egin ahal izatea da. Horretarako, Udalak hobetze lan batzuk burutu ditu esandako lokalean. Alde batetik, garbiketa eta desinfekzio lanak egin ziren, eta bestetik, margoketa lanak. Guztira, 3.350 euroko kostua izan dute lan horiek. Udalaren esanetan, «Osakidetzazozik agertu da lokalaren egoe-

rarekin». Hori horrela, joan den astean hasi ziren lokala erabiltzen.

Herri Eskolan ere hobekuntza lanak egin dituzte

COVID-19ak eragindako osasun egoera dela eta, Udalak Herri Eskolan ere zenbait hobekuntza lan eta ez-ohiko garbiketa lanak hartu ditu beregain. Ikasle eta irakasleek ahalik eta babes haundiena izan dezaten egindako lanak dira guztiak. Ikasturte honetan Herri Eskolan 43.485,42 euroko ez-ohiko gastua egitea aurreikusten du Udalak, COVID-19ak eragindako egoera dela eta.

Egindako lanei dagokienez, hainbat dira egin dituzten aldaketak. Eraikinean egunero 4 ordu ez-ohiko garbiketa bat egin da; horrek ikasturte osoan izango duen kostua 24.930,84 eurokoa da. Bestalde, Haur Hezkuntzako bi geletatik zuzenean jolastokira sartu-irteteko ateak jarri dira. Horrek 10.783,52 euroko kostua izan du. Horretaz gain, jangelako zerbitzua era seguruagoan eskaintzeko gortinak jarri dira eta 4.483,07 euroko kostua izan du.

Jolastokia ere margotu da, sarrera ordua modu antolatuan egin ahal izateko. Lan horren kostua 1.887,60 eurokoa izan da. Eta azkenik, komunetako kaniletan detektagailuak jarri dira, eta 1.400,38 euroko kostua izan du lan horrek. **K**



Gemma Sangines psikologoa da, hizkuntza-ohituretan aditua.

Hizkuntza-asetibitatea lantzeko tailerra egingo da

Hizkuntza-ohituretan aditua den Gemma Sanginesen eskutik, ikastaroa izango da Biterin ostiralean, eta izena eman daiteke.

lehen hitza euskaraz botatzen ausartzeko baliabide askatzaileez jabetzea da. Tailerra ostiralean izango da, arratsaldeko 17:30etatik 20:00etara bitartean, Biterin.

Banakakoen Euskaraldirako izenematea abian da

Azaroaren 20an hasiko den Euskaraldiko norbanakoen izenematea zabalik dago. Herriko zenbait txokotan QR kodeak jarri dituzte eta horren bidez, izena eman daiteke. Bestalde, gaur 18:00etan Biteri kultur etxearen aurrean mahaia jarriko dute, jendeak izena eman dezan. Bestalde, Biteriren sarreran ere kaxa utzi dute, eta hor ere apuntatu daiteke jendea. Edo, bestela, Euskaraldiko bulegoan ere eman daiteke parte hartzeko izena. **K**

HERNANI EUSKARALDIA

Euskaraldia Euskara Ari Du ekimenaren barruan, hainbat egiteko antolatu dira urrirako. Horietako bat Gemma Sanginesen ikastaroa da, hizkuntza-ohituretan aditua den bilbotarrarena. Bertarako izenematea irekita dago, euskaraaridu@dobera.eus helbidera idatziz, edo 689 675 462 telefonora deituz.

Antolatutako ikastaroa saio bakarreako izango da. Helburua

Kontzientzia historikoaz mintzatzeko, hitzaldia

Ostegun honetan, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Iñigo Larramendi kontzientzia historikoaz mintzatzeko da Biterin.

HERNANI HERNANI ERROTZEN

Hernani Errotzen elkarteak udazkeneko hitzaldi ziklo bat antolatu du urria eta azarorako. Horren harira, ostegun honetan Iñigo Larramendiren hitzaldia izango da Biterin, arratsaldeko 19:30etan. *Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela eta, Erdi Aroko kontu bat 2020an?* izenburupean, Larramendik hasiera emango dio 3 saioko hitzaldi

zirkulari. «Hitzaldi honetan, historia baino gehiago, kontzientzia historikoaz mintzatzeko gara; erantzunak eman baino gehiago, galderak pizten saiatuko gara», azaldu dute. Eta jakitera eman dutenez, saio horrekin jakinarazi nahi dute «soilik bere iraganaren jabe den herri bat izan daitekeela bere etorkizunaren jabe».

Ondorengo bi saioak urrian eta azaroan izango dira

Hitzaldi zikloan egingo dituzten ondorengo bi saioak urrian eta azaroan izango dira. Lehena Fernando Sanchez Aranazek eskainiko du, urriaren 29an. Bigarrena, aldiz, Iñaki Lopez de Luzuriagak, azaroaren 19an. **K**

Sarean Euskaraz egitasmoko doako ikastaroa izanen da larunbatean

Goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara bitartean izanen da, Ganbara Aretoan. Saio bakarreako ikastaroa da eta izena eman behar da.

GOIZUETA IKASTAROA

GISA elkarteak Maider Likona da Pribatutasuna Sarean ikastaro zuzendaria, eta larunbat honetan, urriaren 24a, Goizuetan izanen da, bi orduko saio bakarreako. Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak elkarlanean antolatutako ikastaroa da, eta Goizuetako Udala laguntzaile la-

netan aritu da ikastaro aurrera eramateko. GISA elkarteak burujabetasun teknologikoa bultzatzea helburu duen elkarte da, eta software librea, hardware librea eta sare libreak sustatzen dituzte. Horren gainean arituko dira larunbat goizean.

«Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure bizitzako alor guztietan: aisialdian,

ikasketetan, lanean, harremanetan... Baina nolako arrastoa uzten dugu? Nork eskura dezake informazio hori? Nolako ondorioak izan ditzake? Eta etorkizunean?». Galdera horiei erantzutera eta, batez ere, sare sozialak egoki erabiltzeko hainbat aholku aletzera bideratutako saioa da Goizuetan eskainiko dena.

Ganbara Aretoan egingen da ikastaroa, goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean. Interesa dutenek izena eman behar dute aurrez, ondorengo webgunean: www.sareaneuskaraz.com. **K**

'Gasinera' berria ireki du Repsolek Hernanin, Eco-Gate planaren barruan

EAEn Repsolek duen 'gasinera' bakarra da, eta aste honetan estreinatu dute.

HERNANI GASINERA

Gas natural garraigarria hornitzeko 'gasinera' ireki berri dute Hernanin. Europar Batasuneko Eco-Gate programaren barruan dagoen apustua da, eta datozen urteetan Espainia, Alemania, Frantzia eta Portugalen beste 21 'gasinera' zabaltzea espero dute. Adierazi dutenez, «instalazio



EAEn dagoen 'gasinera' bakarra da, eta martxan da honezkerok.

horrekin, Repsolek hornikuntza-puntu propioak hedatzeari ekin dio Euskadin». Eta Hernanin ezarri dute, Donostia Korredore Atlatikoan «emisio baxuak hornitzeko polo estrategikoa delako». **K**

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**